

**BALENDIN AURRE-APRAIZ OLERKARIAREN
JAIOTZAKO MENDEURRENA
(1912-2007)**

Sarrera

Aurreko alean (2012-3) Sabin Muniategi olerkariaren mendurrena izan genduan gogoan. Izan be, *Karmel* aldizkari honetan etxe-etxeko izanik, ez egoan ezikusi egiterik. Geure aldetik esker txarrekoak izango ginatkean, mutu geratu bagina. Beste horrenbeste esan geinke Balendin Aurre-Apraizen kasuan be. Sabini buruzko idazlanean, Balendin be behin baino gehiagotan aitatu genduan, hainbat gauzatan antzekotasun handia ebelako. Esaterako, semez, biak hur-hurrekoak: Gaute-giz Arteagakoa bata, eta Ajangizkoa bestea. Urte berean, 1912an, jaiok; Balendin azaroaren 3an eta Sabin abenduaren 11n. Biak goi-mailako formaziorik hartu bakoak, eta literatura bideak bakoitzak bere kontura urratu eta ibiliaz-ibiliaz eta ahaleginaren ahaleginaz gorantz egitea lortu eta maila ederrera heldu ziranak. Beraz, alde horretatik, merezimendu handikoak eta eredugarriak. Biak urte batzuetan atzerrian bizi izanikoak: Sabin Filipinetan; Balendin, barriz, Venezuelan. Biak gerra aurreko eta osteko abertzale giroak euskal olerkiaren baratzeran bidean jarriak; bi-biak, atzerrian aberriaz ametsetan, herriminak jota Euskal Herrira bihurtu ziranak; Eusko Gudarosteko guda-riak gerratean eta Diktadorearen ziega ilunetako zigor latza sufritzen gerra ostean. Biak baserriko semeak, baina itsasoa auzoan, hur-hur eta Urdaibai itsasadarraren ikutua airean eta in-

gurumarian sumatu ebenak. Batak, baina, itsasoan bilatu eban ogibidea; besteak, barriz, lehorrean, baserrian. Behin eta barriro batuko ziran halan be, olerkigintzan bidaide izan ziralako, hasierako urteetan *Euzko Gogoan*, *Euzkadin*... idazten ebene-kin batera; eta geroago, A. Santi Onaindia eta *Olertin* eta *Karmelen* idazten ebene-kin batera.

Bizkaiko olerkari bioi begira jardun dot sarrera honetan, bata aitatu ezkerro bestea be aitatu behar nebalakoan-edo... Izan be, aurreko alean Sabin Muniategiri buruz idaztean, haren izaeraren eta olerkien airea geratu jatan gogoan, kanta gozo baten doinua barruan luzaro itsatsita geratzen dan antzera. Hortik jatort arteagarraren doinua behin eta barriro. Baina hemendik aurrera, ahal dala, interferentzia barik jardun nahi neuke Ajangizko olerkariari buruz.

Ez da hau lehenengo aldia *Karmel* aldizkari honetan Balendin Aurre-Apraiz olerkariarengana hurreratzen garena. Hirugarren aldia izango da, oker ez banago, eta lehengoak berresan eta betiko leloan galtzeko arriskua hortxe dago. Nahita edo berariaz gorde nahi neuke neure burua arrisku horretatik...

Ajangiztarrari buruz idazterakoan, heldulekurik bidezkoena, ohikoena eta errazena *olerkariarena* da, hau da, Balendini olerkari dan aldetik begiratzea. Beste ezer baino lehen edo gorago, Balendin Aurre-Apraiz olerkaria da, izan be. Olerkaritzat hartu izan dogu beti eta olerkaritzat eban berak be bere burua. Gerra aurreko eta ostekoak *olermena* aitatu ohi eben. Hau da, olerkariaren dohaina, ederraren zauskada mehe fina sentitzeko berriazko dohaina, goi-arnasa, inspirazioa; ederra den horretaz gozatzeko eta ederra forma ederrez –kasu honetan hitzez eta barne-erritmoz, batzuetan hitz neurtuz eta errimaz– adierazteko gaitasuna; pertsona hautatu batzuk, olerkariak deritzenak, dabena. Beraz, hemen be *daukanak dauka eta ez daukanak baleuka*... Baina lehengoak ez errepikatzearen, Balendinen beste alde bat ekarri nahi neuke hona:

Gure olerkariaren prosazko ekarria

Balendin olerkari-olerkaria, ia olerkari hutsa, dalakoan egon geintekoz, baina ez; askok uste baino gehiago idatzi eban prosaz. Olerkien baratze jori usaintsua eban izatez berea, baina noiz-behinka agertzen zan prosazko landa zabalera be. Aldian-aldian batetik bestera igaroko zan, atsedean hartzeko, asaskatzeko; eska-kizun handiko eta goi-goiko lantegitik errazagora, arruntagora; bi-txigintzatik eskulangintzara.



Mendieta Agerre, Ajangizen (Bizkaian)

Karmel aldizkarian, Julen Urkizak eginiko bibliografian, 34 lan zenbatu ditut prosaz idatziak 1958an hasita. Nik 1970eko hamarkadaz honantz idatzirikoari erreparatu deutsat batez be. Estiloa edo idazteko joera bere-berea dau. Iritziak ondo sartuak eta finkatuak, bere sasoi edo belaunaldiko kultura giroan eihoak, esperientziaren eta baserri-bizitzaren, euskaraz bizi dan herriaren, altzotik hara xurgatuak.

Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* jatort gogora, Aurre-Apraizen prosari begira jartzean. Ez, egin-eginean be, honen idazkerak haren airea daualako. Ez, ez dot sumatu horretan

antzekotasunik, biak bizkaieraz idatzi izana baino asko gehiagorik. Antzekotasuna ideietan sumatu dot batez be: Mogelek, euskararako, Peru Abarkaren baserriko maisutza jartzen dau eredu, euskal gaiztoa egiten eban eta ohituretan be badaezpada agertzen dan Maisu Juan kaletarragaz kontrastean. Ajangizko olerkariak be euskarazko nagusitasun hori, baserri-tik datorren jakintza, berezko eskola, jartzen dau goi-goian. Luban horren ostean tinko jarrita egiten deutse eraso ustezko arerioei... Baina ez nago ziur *lubanaren* irudia danik egokiena haren joera eta kritikak adierazteko. Ez, hemen ez dago benetako areriorik, euskaldunen arteko diferentziatuak baino. Geure kultura bidean, euskara etorkizuneko tresna eta bitzitza osorako baliabide egoki eta indartsu bihurtzeko, ditugun diferentziatuak.

Gaiak

Euskararen gaia guztien gaineretik. Balendin Aurre-Apraizen belaunaldiak berbertatik bizi izan eban euskararen batasunaren gatazka kultural hori; gainera, galtzaileen sentimenduz eta aurrekoengandik jasoriko altxorra arriskuan ikusiz bizi izan dauala, nik uste. Horrek eragin dau, alde eta aurka, hainbeste idatzi izatea gai horren inguruan. Balendini eta honen belaunaldikoei erresumin antzeko zerbait igartzen jake euren idazkietan, belaunaldi gazteagoetan gelditu barik indarra hartuz doan euskara batu "H" dunaren aurrean. Baina ez da hau benetako gerra, iritzi desberdinen arteko lehia baino; lehia zaratatsu eta gatazkatua batzuetan; askorengan ondoeza sortu dauana be bai, baina azken baten, euskaltzaileen eta euskara maite dabenen artekoa. Hona hemen Balendinen prosan, era batera edo bestera, behin eta barriro agertuko dan gai, kritika edo kezka isildu bakoa. Agergarritzat, beraren atal batzuk hemen tartekatuz joango naz. Ez dogu iruzkin luzerik egingo. Kasu batzuetan, aitatu baino ez; beste batzuetan, geldiunetxu bat; eta, azkenez, gai interesgarria begitantzen jakunean, ia osorik aldatuko dogu hona.

Euskararen batasunari buruz dihardu *Karmel* aldizkariaren 1970-1 alean. Egin-eginean be, urte bi lehenago, 1968an, egin zan Arantzazuko batzar ospetsua, euskara batuaren abiapuntu izan zana eta arazoa pil-pilean egoan; holan, auzi horrek bu-ruak beroturik, euskaltzaleen nahiz erdaltzaleen, adituen nahiz ezjakinen berbabide bihurtu zan. Hona Balendinen hainbat go-goeta eta iritzi, aitaturiko ale horretan:

Leengoak leengo, iñoiz baiño beroago dabilkigu, aldi onei-tan, euskerearen batasun-asmua. Elederrerao bear-bearreko dogu izan be, batasun-euskerea.

Euskararen batasuna dala-eta batzar ugari egiten dirala han eta hemen esango deusku, baina batzarretan ez dauala asko sinisten:

Batasun-alde egin daikeguzan batzarretatik ezer onik ur-ten dagikeanik ez dakit. Batzarretan berba asko egin oi da (aizeak eroaten dituan itz asko) eta geien-geienetan, ezer era-bagi ez. Nik neuk ez dot uste, ba, batzarretatik urten dagikea-nik euskerearen batasun-bide taiuzkorik. Batzuk, iñausketa andiak egin gura leuskioez, euskalki bakoitzari, batasun-bi-dean sartzeko. Beste batzuk, ostera, izkelgi berezi bat artu gu-ra leukee oiñarrizat; (Giputza, urrean). Neure eritxiz be, gi-puzkera dogu geien edatuta dagoana ta Bizkaikoak eta bes-teak bere errezen ulertzen dabeena. Baiña, guztiok dakigunez, makal eta txiro agertuko litzakigu, batasun-elederrean, bestee-kaz naasi gabeko izkelgi bakarra.

Ondorengo lerroetan, adizki eta atzizki batzuk aitatur, pro-positamen zehatzak eta aholku argiak emotera ausartu da. Dana dala, literaturarako batasunaren aldeko agertzen jaku:

Idazle guztiok gura genduke euskerearen batasuna; euskal-ki bakoitzak, berak bakarrik, eleder apaiñari dagokionez idaz-teko, zabalera gitxiegi dau-ta. Batzuk bai badiño, euskerea daukagun egoera larri onetan amesak laga ta dagoan tokietan eustea be ez dala, oraingo, gitxi. Oindiño euskaldun diar-duen errietan bizi gareanok, argi dakusgu au. Alde guztietatik bultzaka daukagu erderea, ta euren euskalkia ozta-ozta baiño

besterik ez dakienari ulertuko eleukeen euskerea emoteak mese-detako beste kalte egikeoe.

Okerreko bidea markatzen diharduelakoan, euskaltzainen-tzat eta haren ingurukoentzat doa amaierako abisu zorrotza:

Ez dakigula, gero, “zaitan itto” biozkada barriakaz eta idazle gazteen gurari biziz, zaratatsu, asia dogun batasun-as-mu au. Baiña euskaltzaiñak, eurak, asi badaitez leen artutako idazkerea ta abar ostikopetu ta izki barriak asmau ta idazten, Aresti adiskideak egin izan dauskunez, batasuna barik “txa-taltasuna” sortu daiteke, Arantzazuko praille-geien asmu onakaz batera gu lako gitxi batzuen ekiñak gora-beera.


“Abadeak euskal arloan” izenburua dauan idazlana dakarsku hurrengo (1970-4). Abadeak elizan darabilen euskara eta eliz liburuetak, liturgiako, Bibliako euskara... horren guztio-rren gainean egiten dau gogoeta, baita kritika be, bere betiko estiluan. Izan be, herri txikietan, nahita edo nahi barik, abadeak eta elizak izan dira eliztarrak euskaraz alfabetatzeko eskola bakarrenetarikoa. Askotan, tamalez, eskola hori ez da izan behar baizen zuzen eta egokia, elizgizonak latinaz eta erdaraz gogoia nahiko kutsatuta ebelako. Kezka hori nahiko agerian iz-ten dau idazlan honetan:

*Abadeak izan doguz, gure errietan, urteak zear, euskal ar-loan lan egiteko aukera, beta, era ta astirik geien izan dabee-nak; baiña banakak ez besteak aintzakotzat bere ez dabe artu izan euren eliztarren berbetea, ta alperrik galdu zituezan eus-keraren alde lan ugari egin eukeen ereti egokirik asko. (...)Gure leengo abadeak, geienak baserriko semeak izan be-ta, berezko euskera ederraren jabe ziran, eta erreztasun andiz egin bere egiten eben izketan ziarduenean; baiña marapillotu egin oi zi-ran zeozter erderatik itzuli edo itzaldi naiz azalpenik egin be-rra izaten ebenean. Oraintsu-oraintsurarte Euskalerriko abade-geitegietan aintzakotzat bere egundo ez dabe artu izan euske-rea, ta ikasketa guztiak erderaz egin ondoren **esku-utsik** agertzen izan dira Jainkoagana zuzendu bear zituezan artal-deen aurrera. Batzuk, odolaren deiari erantzun bearrez, joske-*



ran egin oi zituezan erderakadak-eta oartu bage, **gotzonak**, **txadona**, **doibatza**, **txaunburua** ta abar eta, **baita-be** ta beste eliztikeri (gramatikakeri) batzuk esanez gero pozik geratzen ziran euskereagazkoak egin zituezelakoan. Badago obarik! Sarrri entzun izan doguz, gure elizetan, abade jaunen aotik, aulako erderakadak: “Arratsaldean lauretan egingo dogu elizkizuna, **zeinetan** egingo dan errosarioa”.

Elizkizunetako kanta eta hainbat testutan aurkitu dituan akatsak aitutzen deuskuz ondorengo lerroetan:



*Eliz abestien liburu batean baiño geiagotan ikusi izan dot **Agur Jesusen Ama** abesti errikoian **pozkidaz** jatorrizko itza kendu ta **poz utsez betea** ipiñita. Zelako eskubidez aldatu **pozkida** itz ederra **poz utsez** adierazpen ergel eta esangura egokieza ezarteko? Aldatzailleek ez ekien, urrean, **pozkida** alaitasuna (alegria) danik. Itxi daioguen, ba, bakean, leengoeri ta egin daiguzan barriak izkera zuzen eta egokiz.*

Mezako itzulpenen testuak be ez ditu guztiz egokitzen josten. Joskeran lehengoen beste erdarakada izan ez arren, akatsugariz agertzen dirala dino:

*Mezatarako irakurgaiak-eta egiten dituezanak ez dakie **zu, zeu, gu, geu** izenordeak noz erabilli, ez **ala, edo ta naiz (nai)** lokarri-itzak noz erabilli, ez aditzak ondo erabilten be.*

*Zer dala-ta **“Gure Aita”** otz-otz, zeruko Aita geure-geurea izanik? **Geure Aita** esaten dogu, euskaldun jatorrak, eta esan be aulan egin bear da.*

Abade zaarrak erri-euskerea ondo ekien baiña, geienak, erderara makurtuak bizi izan dira eta mesedetako beste kalte egin izan dautse gure izkuntzeari. Oraingoak, barriak, geienak, txarto-txarto dakie euskeraz, eta ikasteko gogo larregi da-beenik bere ez dot uste; eta oneik bere mesedetako beste kalte egiten diardue euskereari.

Hurrengo honetan denborala sortu dala esan geinke: bizkaiera hainbat komunikabide eta erakundetan baztertua ikusirik, ahotsa jaso dau garratz eta, defentsarik onena eraso dala-koan, trumoi-hotsa entzun da, nahiz eta idazlanaren izenburuak baretasun-itxura agertu. “Ez gaitez lan larritu” jarri deutsa izenburua (1985-4):

Larri gabiz, aspaldion, benetako euskaldunok, larritzekoa da izan be-ta, bizkaiereari alde guztietatik dagitsoen amurruzko eraso gogorraz arduratuta.

Bai Jaurlaritzan, bai Aldundietan eta erakunderik geientan sartu dausku muxturra bizkaiera era, baita gipuzkera be, apurtu ta ondatu guraz diardun amesetako euskera-erdera lo-

rrin baizen kaltegarri orrek. (...) Balite amesetako euskera zital ori erderaz bizi diran eta egundo be benetako euskaldun izango ez diran banaka buru-bero batzuen euskera gaiztoa izatea baiña ez, gero, gu lez beti euskeraz bizi gareanon izkuntzea. Orixe ez, gero!

Ez gaitez lan larregi estutu, ba, bizkaiera-zaleok. Ekin daio-gun geure euskera erritar eta benetakoa idazten, irakurten, itz egiten eta indarbarritzen; gero ta gero be, Bizkaiko euskera sendo baizen giartsu eta gipuzkera samur ta gozatsuaeren al-kartasunetik urten dagike euskerearen benetako batasunak, idazleen egitez eta ekitez.



Bai gerra aurreko euskara sabindarra eta haren barri-areia, bai euskara batua, beronen eraikuntza zehatzean eratu zan moduan, baztergarrizat jotzen ditu; eredu bion ordezt, gehienbat, gipuzkera oinarri dala, euskalki honen eta bizkaieraren bat-egite zuhur eta egoki batetik sortuko litzakean euskara batuaren asmoaz amets egiten dau. Bide batez, bere esperientzia kontatzen deusku. “Amesetako euskerea” jarri deutsa izenburutzat (1986-2):

Gaztetan, euskeraz idazten asi izan gintzazanean, sabin-dar amurratuak izan gintzazan eta itzen izpiakera guztiak ez direala (ez-eze), **leban, leuguban** eta Bilboko Euzko Gastedikoeri ikasitako barrikeri ganorabako asko idatzi oi genduzan, areik, kaletarrak, guk baserritarrok baiño euskeraz obeto ekie-lakoan. Geure euskera jatorra itxi eta “espetxetik urtengo nazanean”, “joango gareanean” eta abar esaten be asita nen-goan ni neu, naiz-eta guk “urteten dodanean” eta abar esan.

Leban, leuguban eta olangoak, “amesetako euskerea do-zak”, esan eustan, bein, J.A. Oar-Arteta geure erriko semea zan euskaltzale argiak. Baiña, gure gazte-gogoak etzego-zan, orduan, erri-euskera benetakoari jarraitzeko eta adiñekoak erabilli eraien berbeta jatorrari ez geuntsan ja-ramon larregirik egiten.

Naiz-eta asieran diñodan amesetako euskerea erabilli, ni neu baserritar euskaldun uts-utsa nintzan: euskal sen andia-ren jabe nintzan; eta, Gastedikoen barrikeriak, sasi-idazleen atzekoz-aurrerakadak, izparri ganorabakoak eta abar itxi, itz baten esanda, “amesetako euskera lorriña” itxi eta neuk nekian egiazko berbetea erabilten asi nintzan, erderakada batzuk zuzenduaz.

Ondo nekian gure guraso ta enpaiduak, naiz-ta guk “espe-txetik urteten nazenean” esan, “urten naitenean” esan eroiena eta “joango gareanean” barik, “joan gaitezanean”. Erriko zaa-rrak artu nituan, ba, benetako Euskalzaintzat eta buru ta biotz oratu izan neutsan erriak erabillan euskera jatorrari.

Aldi onetan be badira batua edo lorriña dala-ta dakien baiño be askozaz txartoago itz egiten eta idazten diarduen euskaldun jatorrak.

Txoriburukeri ta amesetak itxi ta dagoan lekuan sendo eutsi bearrean dago gure berbetea. Euskeraz etxean, euskeraz bear-lekuan, euskeraz kalean, euskeraz basoan eta euskerea bizikerako egiñen guztietan darabilgunona dogu euskerea eta ez, bigarren berbarako erderara joten daberen, or zear dabizan lorrintzaille erdalzale agozabal buruberoena.

Eutsi daiogun, ba, gure erri-euskera benetakoari, indarrez ezarri guraz diarduen euskera lorriña arbutaturik, erdereak iruntsi ez dagiskuzan euskerea ta geure izakerea.

Irakurlea ohartuko danez, Aurre-Apraizen estiloa hor agertzen dana da. Orain arte laburturik hona aldatu ditugun idazlan atalak nahiko ez baziran, hona azken honetan lauso barik, garden-garden eta ausart, bera dan lakoxea agerian. Sasoi baten J.A. Mogelek *Peru Abarka* legez, baserriko eskola, euskaraz bizi ziran lehengoan eta oraingo zaharrena, dakarsku aurrera, “erdarakada batzuk zuzenduaz”. Zaharren erdarakada honeen artean, gehienbat, lexikoari jagokozanak izango zituan gogoan, ez dalakoan be beti itsasten jakuzalako halakoak. Beraz, aho-tsa jaso eban, herri euskaldunaren profeta-ahotsa; ez gerrako lubanetik, ezta elizako pulpitutik be, baserriko eskola naturaletik baino. Hauxe dogu Balendin Aurre-Apraizen estiloa.

Baina goazen aurrera, *Karmel* aldizkarian agertu zituan beste gai batzuen lorratzean.

Berak miresten zituan hiru bat euskaltzale eta adiskide eka-rrri zituan aldizkari honen orrietara: Andima Ibinagabeitia, Jokin Zaitegi eta Gabriel Aresti. Lehenengo biak maisu handitzat zituan; Gabriel Aresti adiskidetzat bai, baina ez maisu handitzat. Okerreko bidetik joiala uste eban, berak desegokitza eban euskara batuaren aitzindarietarikoa zalako.

Andima Ibinagabeitia hil ondoren, handik hiru urtera, idatzi eban eta izenburu deigarri hau jarri eutsan bere idazlanari: “Erri-miñak il eban” (1971-2). Hona ataltxu batzuk:

Caracas-en ezagutu neban (era barriko etxe-tantai bateko amaikagarren oiñean bizi zan bere lobakaz) eta euskalzaleta-sunezko lokarri sendoz alkarren lagun egin giñan. Igande ta jai arratsalde guztiak egiten genduzan alkarregaz eta, Euskal-erriaganako maitetasun sutsuz azkorturik, euskeraren inguruan izaten ziran gure auturik geienak. Hamaika ibiltaldi egin oi genduzan, biok-biotara, bero-aldeko igande arratsalde

kadenetan, erri-miña biotzetan eta gogoa Euskalerrian! Gu biok bezela euskal arazuak arduratzen eban euskaldunik, bat bere, ez genduan aurkitzen eta biok-biotara ibiltzen giñan, geienetan, izan oi genduzan goibeltasun eta pozaldiak alkarregaz asaskatzen...

Izaera bizi ta sen andiko gizona zan, baiña eban adiñerako aul samar aurkitzen zan; eta gaitzak artu eutsan erri-



miñez nekatutako biotza. Andi egin arte Iosulagun izandakoa genduan, gure gizon au, eta eleder-ikasketa eta sakonkiro egiña zan. Iosuren lagunditik bere gurariz alde ebala esan eustan, bein. Lagundia itxi izanarren atsekabetsua lakoa nabaitzen neutsan, sarritan; eta Iosulagun-izakereak bazirauala agan nik uste.

Bizkaitarra izan arren, giputz idazten eban, gipuzkera oso-tua izan bear eukeala euskeraren batasunerako uste ebalako-edo; baiña auxe esan eustan, iñoz: “Bizkaieraz idazten jarraitu izan baneu, obeto idatzi negikean”. Dana dala, erdiko bidetik jotzen eban eta egoki, argi, ulerterrez edo ederto idatzi eroian. A lako idazle ugari bagenduz orain dabizan atzekoz-aurrerakada ta erderakadaz beteriko euskera gaiztoa uxatzeko!

Azkenik, aitorpen biribil hau egiten deusku haren bizi guztiko eskaintza eta euskaltzaletasuna gogoan izanik:

Ez dot ezagutu izan, ba, iñor, autuan dabiltan gizon au baiño euskaltzale osoagorik. Ainbat izkuntza ekizan arren bere izkuntzea, euskerea, erabilten eban beti, bere ezpan eta idazkortzean. Noraezean baiño ez eutsan erdereak urtetan. Eskereari eskiñia eukan bere bizi guztia. Ondo ekian, ba, euskeran egozana Euskalerraren itxarokizun guztiak.

Jokin Zaitegiren miresle handietarikoa be izan zan. Andimari eskainiriko gorazarre eta aitorpen beroak eskainiko eutsazan honi be. Hau hil ondoren, idazlan labur baina sentimendu handikoa idatzi eban. “Azken agurra” izenburuaz dator (1979-3). Hona hango hainbat pasarte:

Mingostasun aundiak zauritu dauskuz biotzak euskaltzaleoi. Azken urteotan euskereari bultzadarik aundiena egin izan dautsan olerkaria, idazlea ta itzultzailea galdu dogu.

Jaun onek baiizen sakon eta zeatz euskerea ekianik ez dot ezagutu izan, nik neuk, inor. Ez egoan jaun argi arek ez ekian itzik, esakerarik ez aditzik. Aren lanetan ez da irakurten erdal itz itsusirik, joskera lorriñik ez aditzeri iges egiteko itz-joko ganora bagakorik. Azkueren iztegi guztia ta beste askorenak be, buruan eukazala nik uste.

(...) Gudu ostean, euskaltzale guztiak zigorpean ikaraz ziranean, Euskalerrian euskeraz ezer argitaratzea eziñezkoa zanean, Euzko-Gogoa aldizkari ederra atera euskun Guatemalan. Antxe, aldizkari atantxe, batu zituan aldi atako olerkari ta idazle onenak eta egundoko bultzadea egin izan euskereari.

Ordurarte euskeraz inoiz erabilli etziran gai sakon eta jakiturizkoak aizeratu zituan eta aldizkari ak euskereari egin izan eutsan bultzadea ta eragiña, gaur bere ezagun dira euskerearen baratzean.

Asko bere asko zor dautso, ba, euskereak eta Euskalerriak, bere osasun, ondasun eta eban guztia euskerearen alde xautu zituan gizon zintzo ta jaun argi genduan euskalari ta aber tzale jator baizen jakitun eta nekagaitz ari.

Gabriel Aresti eta bien arteko adiskidetasuna harrigarri begitanduko jako bati baino gehiagori. Izan be, bataren eta bestearen izaera, pentsaera eta kultura-ingurumariari erreparaturik, ertz batean eta bestean egon behar dabela uste izan geinke. Eta halantxe da puntu askori jagokenez. Gainera, Balendin Aurre-Apraiz mugitzen zan euskal giroan badakigu Gabriel Aresti pixka bat begitan hartua zala. Bilboko poeta eta Ajangizko olerkaria alkarrengandik urrun be urrun zirala bistakoa zirudian... Baina adiskidetasuna berezko muga eta eragozpenen gaintetik igaro ohi da batzuetan. Dana dala, Gabriel Arestiren bihotz handiak gure Balendin hunkiturik itzi ebala dirudi, gaixorik eta triste aurkitzen zala, bisita egin eutsanean. Berak aitortzen dau biak batzen ziranean, isildu bari berba egiten ebela, kanpoko eta batez be barruko gauzak, sentimenduak, erlijiozkoak eta abar astintzeraino. “Arestiren gomutaz” dau izenburua ha hil eta hiru urtera idatziriko idazlanak (1979-1). Hona pasarte batzuk:

Guda osteko urte larrietan, euskaltzalerik geienak lozorroan ziranean, ezagutu genduan elkar, iru-lau bizkaitarrek eta gipuzkoar batzuk Eibarren egin izan genduan ixil-batzar baten.

Bizkaiko euskerea be baekian arren, Lapurdiko euskeraz idazten ekin izan eutsan, euskal elederrean leenengo urratsak areik egin izan zituela-ta.

LAGUNGIÑA, borondate onekoa ta urkoari mesede egiteko gertu egoana bere bagenduan. Azurrak ausita eritegian nengoala jakin izan ebanean, besarte bete liburuz eldu ekidan beingoan. Liburu arein artean bat, García Lorca olerkari negargarriaren lan osoak eukazana ekarri eustan. Baekian, antza, andaluziar zoritxarreko olerkariaren lanak gogoko ekidazana. Biotzez eskertu nakion, ba, bere ikustaldia zala-ta, etxetik landa, ogean arat nengoan aldi goibel atan.

*Askok esan izan dabe asko, Aresti dala ta ez dala: Batak **komunistea** zala, besteak ez dakit zer be zala ta abar. Ez genduan, aurki, jaurespide (erlejiño) bati lotuta egotekoa, baiña, Jainkoa siñesten ebana badakit, behintzat. Alkarregaz batu oi giñanean iñun direan autueri ekin oi geuntsen, eta, Jainkoa **bere erara** siñesten ebala esan eustan, bein. Neuk bere neure erara siñesten nebala esan neutsan. (...) Baiña, ge-roaren itxaropen ziurrik ezak eraginda-edo, oldozkizun asko ebizala zirudian aren buru naastetsuan.*

Bata esan zein bestea esan, azken urteotan euskaltzaleen artean geien nabarmendu izan dan olerkaria ta idazlea izan genduan, Aresti, ta aren utsunea nabari izango da gure artean.

Jainkoak beuko betikotasuneko atsedeen-toki gardenean.

Hiru idazle eta adiskide ekarri zituan *Karmel* aldizkariko orrietara. Hareei buruzko hainbat atal aitatu ditugu goiko le-rruetan, baina laugarren bat be agertu eban: Lauaxeta, Bizkaiko bere olerkari maitea. Gotzon Garatek aldizkari honetan bertan idatzi eban Lauaxetari buruzko idazlan eder luzea irakurri ondoren, iruzkin txiki bat idatzi eban Balendinek, orain arte, nik dakidala, Lauaxetaz inork agertu ez dauan zertzelada bat dakarrena: Lauaxetak hasiera baten erdarazko olerkiak idazten ei zituan. Olerkiak euskaraz idazten zelan eta noren eraginez hasi zan kontatzen deusku; Zaitegik eta Andimak esanda da-

kiala diño zertzelada hori. “Gotzon Garateren Lauaxetari bu-
ruzko idazlana dalata” jarri eutsan izenburua (2004-3).

*Bein, erderazko olerki bat eskuetan ebala joan ei ekioen
Andimari ta Zaitegiri, arein eritxi ona izatekotan, baiña
areik, Zaitegik eta Andimak, euskerazale amurratuak izan, ez
eutsoen ontzat emon, urrengo itzok esanez: itxi egik erdereza ta
idatzi egik euskeraz, euskaldunok geure izkuntzea indartu
bearra yaugaguk-eta. Areixen esanera asi ei zan, ba, Lauaxe-
ta, olerkiak euskeraz egiten. Beste au be jakingarrria dogu:
Lauaxetak sinismen bagako bat ei eukan espetxean lagun eta
bere otoitz eta itzez, bide onera biurtu ei eban.*

*Nik neuk Lauaxeta ez neban ezagutu arpegiz baiño. Aren
Arrats-Beraneko olerkiak guda aurrean irakurri nebazan,
gaztetan, eta egundoko zirradea egin eustien neure gogoan:
Areixek, olerki bikain areixek, biztu eta azkortu eustien, ba,
neure olermena.*

Beste hainbat idazlan ditut markatuak, 1970etik honanzkoak,
baina aitatu baino ez ditut egingo, batzuk batez be (“Esaerak”,
“Amesetak eta...”) interesgarriak izan arren:

- Esaerak (1980-2)
- Olerkia non sortzen ete da? (1985-1)
- Gabon-jaiak (1988-4)
- Gergoritar eresia (1990-1)
- Urik eza dala-ta (1990-2)
- Amesetak eta... (1991-1)

Ajangizko olerkariaren olerkizko baratzea, lehendik pixka
bat ikusia eta arakaturia geunkana, itzi eta haren prosaren lan-
datik egin dogu ibilaldi atsegina. Haren euskaltzaletasuna nahi-
ko hurretik probatzeko abagunea izan dogu; gai horren ingu-
ruan, euskararen batasunaren inguruan batez be, haren kez-
kak, kritikak, deiak entzun ahal izan ditugu; haren pentsaera,
estiloa, jarrera jator eta ausarta hainbat kasutan, egia bere alde
zeukala uste ebanean, isiltzen ez zanekoa. Bere adiskideen
adiskide leial legez ikusi dogu: sasoi haretako euskaltzale eta



Karmel aldizkariaren idazleen egunean (2006)

kulturako pertsona handiekin hartu-emonetan. Euskararen eta euskal kulturaren zerbitzari eta militante leial hil arte.

Nahita sartu gara olerkariaren prosan, haren beste aldeko fruituak dastatu nahian, baina, orain amaitzeko, ezin haren olerki txiki bat hona ekartzeko tentaldiari eutsi:

BA-DOA

*Gure bizitzea ba-doa,
orbelak aizean lez,
jausi ta jagi, aiz eta heurt,
joan, joan eta joan.
Amesak, amesak, amesak.
Eta gero?
Ene, gero...!*

Luis Baraiazarra Txertudi